

## AMA ETA AURRA.

Nere izar ederra,  
 nere begi urdiñ,  
 ¿zenbat llo llo dezu gaur  
 artzaldian egiñ?  
 ¿zer kontentu esnatu  
 zeraden, ¿laztana!  
 atoz ziazkachotik  
 ainachoren gana.  
 Ia *kika* politak  
 non diran, ikusi!  
 ¿ez aldizkirazu nai  
*kikak* erakutzi?  
 Ara saltoka toto  
 enfadagarriya,  
 miliskatu nai dizu  
*Noblek* arpegia.  
 Kendu ari ortikan:  
 au zakur petrala,  
 ¿ez dek ikusten aurra  
 izutzen dekala?  
*Chacha*, ekarri zazu  
 aurraren *ninia*,  
 ¿ez dezu aitzen ezke  
 dagola umia?  
 ¿Mañak? ¿nork egin dizu?  
 jonek! *u, u, chacha*,

bota maite chistuba  
 emateko *sa sa*,  
 Kokollo artuko du  
 ta *mama gosua*,  
 ¿nork jarri du negarrez  
 gure aur gaisua?...  
 Begira zer *pichia*  
 detan zuretzako,  
*maja, maja* jantzi ta  
*apapa* juateko;  
 begira zer zintacho  
 churi ta gorriak,  
 eta nik ekarriko  
*papata* berriyak.  
 Denak jantziko di tu  
 nere zoramenak  
 zergatikan beriak  
 diran *naka* denak.  
*Chachak* emango di yo  
*patela* ta *papa*,  
 eta eramangodu  
 gañera *apapá*.  
 Eta egingo diyo  
 aurrak amachori,  
 eskucho politikaiñ  
*adi, adi, adi*

V. IRAOLA.

